



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA-OHARRA

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK BIHAR HASIKO DIRA 2022KO AURREKONTUEN 475 ZUZENKETA-ESKE PARZIALAK EZTABAIDETAN

- Eguaztenetik (hilak 16) martitzenera (hilak 21), oposizinoak kontuak aldatzea defendiduko dau Ogasun eta Finantzetako Batzordean.
- EH Bilduk 170 zuzenketa-eske aurkeztu ditu; Elkarrekin Bizkaiak, 165; eta Talde Berezia-PP Bizkaiak, 142.

(Bilbon, 2021eko abenduaren 15ean). Bizkaiko Batzar Nagusiek 2022ko Aurrekontuen Foru Arauaren proiektuari aurkeztutako 475 zuzenketa-eske parzialak eztabaidatuko ditue bihar, eguenean, eta martitzenean, hilaren 21ean. Ogasun eta Finantzetako Batzordean programautako bederatzi saioetan (foru sail bakotxeko bat) Batzar Nagusietako taldeek EH Bilduk aurkeztutako 170 zuzenketa-eske parzialen, Elkarrekin Bizkaiak aurkeztutako 165 zuzenketa-eskeen eta Talde Berezia-PP Bizkaiak aurkeztutako 142 zuzenketa-eskeen inguruko euren eretxia emongo dabe.

2022ko Lurraldeko kontuei egindako zuzenketa-eske parzialak holan banatzen dira aurrekontu-testuen artean: Ekonomia Sustatzeko foru saila da zuzenketa gehien jasoten dituana, 98 guztira. Bere ostean datoz Gizarte ekintzako kontuak, 56gaz; Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala, 54gaz; Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak, 51gaz; Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna, 48gaz; Euskara, Kultura eta Kirola, 39gaz; Azpiegiturak eta Lurralde Garapena, 31gaz; Ogasuna eta Finantzak, 27gaz; gitxien izango dituana Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria izango da, 20gaz. Ganera, Foru Arauaren proiektuaren testu artikulauaren alderdiren bat aldatzeko 31 proposamen dagoz. Zuzenketa-eske batek Udal Finantzaketea aldatzea eskatzen dau eta 19k GUFeren aurrekontuetan aldaketak eskatzen ditue.

Aurrekontuak urriaren 29an hasi ziran izapidetzen, kontuak Legebatzarrean erregistrata. Bizkaiko Batzar Nagusietako osoko batzarrak atzera bota ebazan astelehenean EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak 8.886,1 milioi euroko aurrekontuari aurkeztutako osoko zuzenketa-eske biak. Kopuru horretatik 1.459,8 milioi euro sailek erabiltzeko izango dira. Zuzenketa-eske parzialak eztabaidau ostean, Bizkaiko aurrekontuak behin betiko onartzeko tramitea abenduaren 30ean Gernikako Batzar Etxean egingo dan azken osoko batzar bategaz amaituko da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Ogasun eta Finantzetako Batzordeak Batzar Nagusien Bilboko egoitzan egingo dituan eta Batzar Nagusien webgunearen bidez (www.jjggbizkaia.eus) zuzenean emongo diran bileren ordena holan ezarri da:

Eguena 16

09:30. EUSKARA, KULTURA ETA KIROLA

12:00. AZPIEGITURAK ETA LURRALDE GARAPENA

16:30. GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Barikua 17

09:30 EKONOMIA SUSTAPENA

12:00 IRAUNKORTASUNA ETA INGURUNE NATURALA

Astelehena 20

09:30 ENPLEGUA, GIZARTERATZEA ETA BERDINTASUNA

15:00 HERRI ADMINISTRAZIOA ETA ERAKUNDE HARREMANAK

17:00 GIZARTE EKINTZA

Martitzena 21

12:00 OGASUNA ETA FINANTZAK



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA INICIAN MAÑANA EL DEBATE DE LAS 475 ENMIENDAS PARCIALES A LOS PRESUPUESTOS DE 2022

- **Entre el jueves 16 y el martes 21, la oposición defenderá cambios en las cuentas del Territorio en la Comisión de Hacienda y Finanzas.**
- **EH Bildu ha presentado 170 enmiendas; Elkarrekin Bizkaia, 165; y el Grupo Mixto-PP Bizkaia, 142.**

(Bilbao, a 15 de diciembre de 2021). Las Juntas Generales de Bizkaia debatirán entre mañana jueves y el martes 21, las 475 enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros al proyecto de Norma Foral de Presupuestos de Bizkaia de 2022. En las nueve sesiones programadas en el seno de la Comisión de Hacienda y Finanzas - una por cada departamento foral- los grupos junteros se pronunciarán sobre las 170 enmiendas parciales presentadas por EH Bildu; las 165, de Elkarrekin Bizkaia; y las 142, del Grupo Mixto-PP Bizkaia.

Las enmiendas parciales a las cuentas del Territorio de 2022 se distribuyen entre los textos presupuestarios de la siguiente manera: el área foral de Promoción Económica es el que acumula mayor número de correcciones, un total de 98. Le siguen las Cuentas de Acción Social que se llevan 56; Sostenibilidad y Medio Natural, 54; Administración Pública y Relaciones Institucionales, 51; Empleo, Inclusión Social e Igualdad, 48; Euskera, Cultura y Deporte, 39; Infraestructuras y Desarrollo Territorial, 31; Hacienda y Finanzas, 27; y la que menos, Transportes y Movilidad Sostenible, con 20. Además, existen 31 propuestas para modificar algún aspecto del texto Articulado del Proyecto de Norma Foral. Una enmienda pide cambiar la Financiación Municipal y 19 solicitan modificaciones presupuestarias en el IFAS.

La tramitación presupuestaria se inició el 29 de octubre con el registro de las cuentas en sede parlamentaria. El pleno de la Cámara vizcaína rechazó el lunes las dos enmiendas a la Totalidad presentadas por EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia, a un presupuesto que alcanza los 8.886,1 millones de euros, de los que 1.459,8 millones corresponden al disponible departamental. Tras el debate de las enmiendas parciales, el trámite parlamentario para aprobar definitivamente los presupuestos de Bizkaia finalizará con un último pleno que se celebrará el 30 de diciembre en la Casa de Juntas de Gernika.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

El orden de las reuniones de la Comisión de Hacienda y Finanzas que se desarrollarán en la sede bilbaína de las Juntas Generales para debatir las enmiendas parciales y que se retransmitirán en directo a través de la web de Juntas (www.jggbizkaia.eus), ha quedado establecido de la siguiente forma:

Jueves 16

09.30 H. EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

12:00 H. INFRAESTRUCTURAS Y DESARROLLO TERRITORIAL

16:30 H. TRANSPORTES Y MOVILIDAD SOSTENIBLE

Viernes 17

09.30 H. PROMOCIÓN ECONÓMICA

12.00 H. SOSTENIBILIDAD Y MEDIO NATURAL

Lunes 20

09:30 H. EMPLEO, INCLUSIÓN SOCIAL E IGUALDAD

15.00 H. ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES

17.00 H. ACCIÓN SOCIAL

Martes 21

12.00 H. HACIENDA Y FINANZAS